

AIARALDEA

Jaietan



AIARA

Apirilaren 27tik maiatzaren 5era arte luzatuko dira Aiarako jaiak



Arespalditza izango da jarduera gehien bilduko dituen tokia. Aiaraldea.eus

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Oso egitarau zabala prestatu dute aurtengo Aiarako jaietarako. Datorren apirilaren 26an hasiko dira jaiak eta 29ra arte luzatu. Azken eguna, baina, maiatzaren 5a izango da. Orduan egingo dute Aiarako Mendi Duatloia IV. edizioa eta udalerriko nagusiei bideratutako ekintzak.

Bea Isasi pregoilari

Bea Isasi bolo jokalaria aiarra izango da aurtengo pregoilaria. Arabako Bolatoki Txapelketa irabazi zuen iaz eta Euskal Herriko norgehiagokan ere aritu zen.

04.26 Ostirala

19:00 // Txupinazoa. Pregoiariaren agurra. Portaden lehiaketako irabazleari saria ematea. Txupinazo ofiziala pregoilariaren (Bea Isasi) eskutik. Prontxiri ongietorria. 19:30 // Aiara Dantza Taldearen emanaldia Beti Jai fanfarrearen emanaldia Txorizo- jan herrikoia (Prezioa: 0,5 euro) 18:00-20:00 // Bolo jaurtiketa Kexaako bolatokian 22:30 // Radio Revolución 00:30 // DJ Markelinekin jai goizaldera arte

04.27 Larunbata

9:00 // Erakustxakurren Arabako Open Txapelketa 11:00 // Bolo-jaurtiketa Kexaan 15:30 // Jesús Isasiren omenezko lasterketa 18:00 // Bolo-jaurtiketa Luiaondon 18:00 // Pilota-partida Luiaondon 22:00 // DJa 1:00 // Akerbeltz taldea eta DJ Pako Haurrentzako parkea egongo da egun osoan

04.28 Igandea

10:30 // Kalejira 11:00 // Eskualdeko produktuen azoka 11:00 // Bolo-jaurtiketa Luiaondon 12:00 // Meza 12:30 // Kontzertu korala 13:00 // Danborrada 18:30 // Patxi Perez 19:30 // Aiarako 24 herrien hormairudi zeramikoen aurkezpena 20:00 // Odolki-jan herrikoia 20:00 // Hitzaldia: Aiara literaturan. Jose Luis Urrutiak eskainiko du solasaldia

05.05 Igandea



11:00 // Aiarako IV. Mendi Duatloia 12:00 // Meza eta Eskutxiko ahotsak taldearen emanaldia 14:30 // Nagusien XXVI. Eguna ospatzeko bazkaria eta dantzaldia Iñaki Oteguiren eskutik

AIARAKO JAIK

GAUEKO AUTOBUSAK OSTIRALA 26 ETA LARUNBATA 27

ETORRERA	Artziniega	Lanteno	Menagarai	Ibague	Arespalditza
20:30	20:40	20:45	20:55	21:00	
Laudio	Luiaondo	Amurrio	Murga	Arespalditza	
21:20	21:30	21:40	21:50	22:00	
ITZULERA	Arespalditza	Ibague	Menagarai	Lanteno	Artziniega
04:00	04:10	04:20	04:30	04:40	
Arespalditza	Murga	Amurrio	Luiaondo	Laudio	
05:00	05:10	05:20	05:30	05:40	

Vital
FUNDACIÓN · FUNDAZIOA

ERAKUSTEN DUTEN
HARRERAKOAN DZ
NO LA INFLUENCIA
CONTRA LAS MUJERES

Aiarako Udala
Ayuntamiento de Ayala

Ideiak gauzatzen ditugu

KOPAS

Fabrika:
Aialako Industrialea, 8
01479 Murga - Araba
Tel: 945 39 94 05
Fax: 945 39 94 29
fabrica@kopas.es

Bulegoa-Erakusketak:
Aida, Urkijo, 88 - 2º
48013 Bilbo - Bizkai
Tel: 94 442 22 24
Fax: 94 439 97 69
kopas@kopas.es

www.kopas.es

Txapelak eta bordak - Trofeoak - Kopak - Pin-ak - Plakak - Grabatuak - Tailakutak
Estanpazioak - Giltzalakoak - Kamisalak - Promozio artikulak - Merchandising - Sari instituzionalak...

AMURRIO

The Pushermen eta Suaia eta Ama Rebel igoko dira San Joseko oholtzara

Apirilaren 27tik maiatzaren 1era luzatuko dira Amurrioko San Jose auzoko jaiak. Egitarau oparoa prestatu dute Jai Batzordeko kideek, aurreko urteetako ildoari jarraiki.

The Pushermen, Suaia eta Ama Rebel, DJ Ruba, Sabin, Akerbeltz, Puro Relajo eta DJ Markelin igoko dira auzoko oholtzara.



Umeentzako zein helduentzako ekintza ugari egongo dira San Joseko jaietan. **Ruben Ibañez**

Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Lau egun iraungo dute aurretik San Joseko jaiak, apirilaren 27, 28 eta 30ean eta maiatzaren 1ean izango baitira. Mota askotako ekintzak egongo dira egitarauaren barruan: umeentzako jarduerak, tailerrak, bazkariak, txapelketak, erakustaldiak...

Musika eskaintza oparoa ere egongo da: The Pushermen, Suaia eta Ama Rebel, DJ Ruba, Sabin, Akerbeltz, Puro Relajo eta DJ

Markelin igoko dira auzoko oholtzara. Gainera, hilaren 30ean jarduera berritzaile bat egongo da: Ghetto Battles freestyle txapelketa.

Jai batzordeko kideek jakinarazi dute "egitarau zabala" osatzen saiatu direla. "Auzo guztia- ren bultzadaz ateratzen dira jaiak aurrera, jendearen erantzunik gabe ez litzateke posible horrelako jaiak prestatzea", nabarmendu dute, "auzokideak eta ingurukoak ondo pasatzeko eta gustura egoteko asmoz prestatzen di-

tugu. Beraz, esan daiteke herriarrentzako jaiak direla".

Parte hartzeko gonbita

Jai Batzordeko kideak otsailean hasi ziren prestaketa lanetan. "Musika taldeak kontratatu, ekitaldiei forma eman... egia esan, lan asko dago egiteko", azaldu dute. Horregatik, jende gehiagoren laguntza izatea eskertuko lukete. "Norbaitek lagundu nahiko baligu etorri dadila beldur gabe, ostiral arratsaldeetan biltzen gara 19:30etik aurrera".

04.27

Larunbata

12:00 // Txupinazoa
14:30 // Indaba-jan herrikoia
17:00 // Arabay Flamencoren kontzertua
22:00 // Kontzertuak: The Pushermen, Suaia eta Ama Rebel eta DJ Ruba



04.28

Igandea

17:00 // Umeentzako jolasak, barraketarako fitxak, tailerrak eta buruhandiak
18:00 // Txokolatada
18:00 // Chock Dee gimnasioaren erakustaldia
19:00 // Diskofesta

04.30

Asteartea

19:00 // Ghetto Battles: freestyle txapelketa
22:30 // Kontzertuak: Sabin, Akerbeltz eta DJ Markelin

05.01

Asteazkena

11:00 // Txirrindularitza lasterketa: San Jose saria

11:00 // Fanfarrea
12:00 // Meza
18:00 // Kuskua eta La Mararen erakustaldia (sevillanak)
19:00 // La Mararen rumbak eta sevillanak
20:00 // Puro Relajo



GARAGARDOAK, ARDOAK ETA PINTXOAK

Apirilak 27

18:00
PERDIDO ENTRE ILUSIONES

19:00
PERI FLAY

23:00
BEM PARTIES

Apirilak 28

18:00
ELKARTASUN TUTE TXAPELKETA

Apirilak 30

23:00
BEM PARTIES

Maiatzak 1

13:00
PERI FLAY VERMOUTH-a GIROTZEN

Elizaren alboan T. 945 899 065




CARNICERIA S. JOSE
Gure berezitasuna,
tokiko haragi freskoak
Ondo pasa jaietan!
Zabaleko, 8
01470 - AMURRIO (Araba)
(945) 89 00 31

SAN JOSE JAIK 2019 Amurrio

APIRILAK 27 · 28 · 29
MAIATZAK 1
SAN JOSE Jai batzordea

ARETXONDO TABERNA
(Errotanda alboan)
20:00etatik aurrera bokata egin berriak
Larunbat eta igandean zabalik, ordutegi jarraia

945 39 35 95

URDUÑA

GBH eta Hesian taldeek
girotuko dituzte otxomaioak



Pirritx, Porrotx eta Marimotots egongo dira hirian Umeen Egunean. Jon Catalan

Testua Txabi Alvarado Bañares

Maiatzaren 3an hasi eta 12an amaituko dira aurtengo otxomaio jaiak. Egitarau oparoa prestatu dute udalaren eta herriko elkartearen artean.

Musika eskaintza esanguratsua egongo da jailetan. Lehen larunbatean (maiatzak 4) musika elektronikoak hartuko du Foru plaza, DJ festa egongo baita. Igandean, aldiz, swing doinuak izango dira nagusi, Botxo Boogies taldearekin.

Maiatzaren 10ean, berriz, punk gaua egongo da hirian. GBHk joko du bertan. Birminghameko (Ingalaterra) talde mitikoa Voltium eta Feos Pero Majosekin batera igoko da Foru plazako oholtzara.

Bigarren larunbatean (maiatzak 11), ordea, Ziztada&Rlantz eta Hesian entzuteko aukera egongo da. DJ Korrokoiek arduratuko da gaua luzatzeaz.

Pirritx, Porrotx eta Marimotots

Umeentzako eskaintza handia ere topatu ahal izango da jailetan. Jarduera gehienak maiatzaren 9an izango dira, Umeen Egunean, hain zuzen. Jolas parkea eta bazkaria egongo dira, besteak beste. Arratsaldeko bostetan, aldiz, Pirritx, Porrotx eta Marimotots egongo dira Foru plazan, euren azken ikuskizuna taularatzen.

Pregoilari eta txupineroak

Aurten ere herritarren proposamenak aintzat hartuta hautatu dituzte pregoilaria eta txupineroa. Urduñako Abesbatza eta Santiago txurro-denda kudeatzen duen Barakaldoko familia izendatu dituzte, hurrenez hurren.

05.03 Ostirala TXUPINAZOA
21:00 // Txupinaren jaurtiketa, udaletxeko balkoitik
21:30 // Profesionalen pilota partidak, Jai Alai frontoian
23:00 // Berbena Arizgoiti Erromeriarekin, Foru plazan

05.04 Larunbata
9:00 // Haurren XX. Arrantza Lehiaketa, Gamako lakuan
10:30 // XII. Patata Tortila Lehiaketa eta VII. Paella lehiaketa, Foru plazan
13:00 // Musika girotzea Santa Zezilia musika bandaren eskutik
17:00 // V. Otxomaio 2019 mus azkar txapelketa, Bihotza konpartsaren txosnan
18:00 // Zezenketa jaialdia, zezen plazan
18:00 // II. Aurreku eta fandango eta arin-arin lehiaketa, Foru plazan

19:30 // Kale antzerkia Barsanti Teatro taldearekin: *Kale Gorrian*, Foru plazan
20:30-23:30 // Beldur Barik gunea
21:00 // DJ Festa: DJ Mendi, Carrifest, Pasku Dj, MemJa DJs eta Xabigu DJ, Foru plazan
01:00 // Parranda Gaua DJ Mark Marcosekin (BAK festa) Foru plazan

05.05 Igandea
12:30 // Bihotza Konpartsaren kalejira
13:15 // Taekwondo erakusketa Taegeuk Taekwondo Elkartearen eskutik, Foru plazan. (Euria eginez gero frontoian).
13:00 // Foru plazan, kantu poteoa Etxebarria Aita-Seme Trikitilariak taldearekin
18:00 // Euskal dantzen alardea Erauntsi Dantza Taldearen eskutik, Herri Eskolako jolasgunean
20:00 // Swing

kontzertua Botxo Boogies taldearekin, Foru plazan

05.06 Astelehena NAGUSIEN EGUNA
12:30 // Nagusien omenezko meza, Andra Mari parrokian
14:30 // Urduñako nagusiei zuzendutako bazkaria, Erretiratuen klubean
17:00 // Areto dantzen erakustaldia Orduña Baila elkartearen eskutik, Erretiratuen klubean

05.07 Asteartea
20:30 // VII. Playback lehiaketa, Foru plazan
22:00 // DJ emanaldia Foru plazan: DJ Ra eta DJ Peri

05.08 Asteazkena URDUÑAKO "ANTIGUAKO" ANDRA MARIEN JAIA
10:30 // Agintarien segizio desfilea Antzinako Andra Mari Santutegira
11:00 // Meza nagusia
12:00 // Buruhandien askatzea
13:00 // Urduñako Abesbatzak abestutako meza
13:15 // Santa Cecilia musika bandaren kontzertua Foru plazan
19:30 // Antzerkia Aimara taldearekin Antzinako Andra Mari ikastetxean: *El enfermo imaginario*
20:00 // Berbena Orquesta Pasito Show

taldearekin, Foru plazan

05.09 Osteguna UMEEN EGUNA
11:00-14:30 // Puzgarrien jolas parkea eta bizikleta ginkana Herri Eskolan. Parte hartzeko bizikleta eta kaskoa eraman beharko da. Euria egiten badu Txefosera mugituko da
11:30 // Arrastariako agintarien erromesaldia Antzinako Andra Mari Santutegira
12:00 // Meza Antzinako Andra Mari Santutegian
12:30 // Batibomba eta buruhandiak askatzea
13:30 // Kale animazioa eta kantu poteoa
14:30 // Haurrentzako herri bazkaria
Tiket salmenta Alondegian, apirilaren 23tik maiatzaren 3ra
17:00 // Pirritx, Porrotx eta Marimototsen haurrentzako emanaldia Foru plazan

05.10 Ostirala
17:00 // Gizonezkoen Saskibalo partida: Bedarbide Eskola-Sugarra (Laudio)
18:15 // "Urdaiazpikoaren saskiratzea" frontoian
19:00 // Liga femenina 2 saskibalo partida: Ibaizabal-Barakaldo
20:30 // Urduñako Abesbatzaren kontzertua Andra Mari parrokian, Zeanuriko eta Santurtziko abesbatzek lagunduta
22:00 // Koadrilen afaria, Foru plazako arkupeetan
23:30 // Punk gaua: Voltium (Urduña eta Basauri), GBH (Birmingham) eta Feos

pero majos (Ugao) taldeekin

05.11 Larunbata
09:30 // XX Hipika Kontzentrazioan parte hartuko duten zaldikoen harrera
13:00 // Txistu kalejira
13:00 // Kaleko antzerkia Anita Maravillas taldearekin: *Sardiña bakalao*
15:00 // Herri bazkaria Gernika plazan
17:00 // Berbena Basajaun taldearekin Gernika plazan
18:00 // Western zaldiketa lehiaketa, "Viviendas de Vizcaya" zelaietan.
22:00 // Kontzertuak Foru plazan: Ziztada & Rlantz (Bilbo-Aiaraldea), Hesian (Nafarroa) eta DJ Korrokoiek (Bilbo)

05.12 Igandea
11:00 // Bolo jaurtiketa udal bolatokian: XXIV Otxomaio Txapelketa
11:00-14:00 // Rokodromoa eta tirolina zezen plazan
11:30 // Saratxoko auzokideei harrera Mikel Deuna auzoan
12:00 // Meza nagusia Antzinako Andra Mari Santutegian
12:00 // Poni eta zaldietan ibiltzeko doako aukera haurrentzat zezen plazan
12:30 // Erraldoi eta buruhandien kalejira
17:30 // Eskupilota partidak Jai Alai udal frontoian
19:00 // Patxi eta Konpania Foru plazan
20:30 // Musika girotzea Akelarrearekin
20:45 // Jailetako agur-desfilea
21:30 // Bihotzaren erreketak

HOTEL ORDUÑA PLAZA



Balneario

OTXOMAIO MENUA erreserba egin ezazu

Foru plaza, URDUÑA · Tel. 945 56 90 38
info@hotelordunaplaza.com

Ostatua · Jatetxea · Bainuetxea
Gimnasioa · Ekitaldien antolakuntza

URDUÑA

“Nire ama txurro-saltzaile aritzen zen gurdiaekin, horrela iritsi zen Urduñara”

JUANA SANTIAGO CORDOVILLA (Bilbo, 1959) TXURRO SALTZAILEA HAUTATU DUTE OTXOMAIOTAKO TXUPINERA IZATEKO.

Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Otxomaioetako txupinero izendatu zaituztete. Nola jaso duzue albisteak?

Udaletik deitu nindutenean pentsatzen nuen Aste Santuan postua jartzeko baimenaz hitz egiteko zela. Harritu egin nintzen Otxomaio jailetako txupina jaurtitzeko hautatu gintuztela esan zidatenean. Horrenbeste prezia-tzen gaituzte Urduñan? Nik jende asko ezagutzen dut hirian, baina Urduñara Pazko Astea eta jailetan baino ez goaz. Arraroa iruditu zitzaidan.



Ilusioz hartu zenuten orduan?

Noski. Nire ama duela bi urte zendu zen, eta sekulako ilusioa egingo lioke. Askok hunkitzen naiz, nire ama oso urduñarra zelako, aspaldi denbora asko igarotzen genuelako bertan, ni gazteagoa nintzenean. Baditut garai horretako lagunak, hiru hilabete igarotzen genituela Foru plazan. Txurro-denda bat genuen bertan, berde kolorekoa. Jende askok du gogoan. Astebururo irekitzen genuen eta jende oro ezagutzen genuen, eta nire amak are gehiago. Garai hartan jendeak dendetan erosten zuen, ez zen supermerkatuetara joaten. Plazan igarotzen genuen eguna, jolasten.

Nondik dator Urduñarekin garatu duzuen harreman hori?

Nire amonak txurro-denda bat

zeukan, Guda Zibilaren urteetan. Asuakoa zen bera. Garai hartan elikagai behar handia zegoen. Horregatik, lau oholekin eta sartagin batekin txurroak egiteari ekin zion. Nire gurasoak ezkondu zirenean langabezia handia zegoen. Aita beira fabrika lan egiten hasi zen, eta amak txurroak egiteari ekin zion, ofizioa ikasia zuelako amonarekin. Gurdia eta astoa hartuta zioan herri batetik bestera, erromeriaz erromeria. Duela 70 urte inguru izan zen hori. Horrela iritsi ziren otxomaio jailetara.

Ni 14 urterekin hasi nintzen txurro-dendan lanean. Jendeak txurroak jaten zituen, ez zegoelako gauegun dagoen aukera aniztasuna. Urduñako pertsona nagusi guztiek ezagutzen gaituzte,

horregatik hautu gaituzte, seguru asko, txupineroak izateko.

Nola aldatu da zuen ofizioa azken urteetan?

Lehen jailetan txurroak, gozokiak eta beste lau gauza baino ez zeuden. Orain, aldiz, denetarik dago.

Lehen jaiak sekulakoak ziren, jende andana zegoen gora eta behera. Orain, aldiz, jendea txosnetangeratzen da eta jende nagusia ez da lehen bezala ateratzen. Giroa ezberdina da.

Aurtengoak jai bereziak izango dira zuentzako, ez?

Nik lan egin behar dut. Suziria piztu eta txurroak saltzera joango naiz segituan, hori da nire bitzita.

Urduñako Abesbatzako kideek irakurriko dute pregoia



50 urte beteko ditu abesbatzak aurtan. Aiaraldea.eus

Urduñako Abesbatzako kideak arduratuko dira datorren maiatzaren 3an Urduñako Udaletxeko balkoira igo eta otxomaioei hasiera emateko pregoia irakurtzeaz. Urte berezia izango da aurtengoa koralarentzat, 50 urte beteko baititu, mende erdia. Abesbatzako kideak pozik eta harro daude. “Ospakizun bereziak dira Otxomaioak eta guk izango dugu aukera herritar oro ordezkatzeko”, azaldu du taldeko kidea den Arantza Agirrek, eta gaineratu du “pregoi bizia eta arina” egiteko asmoa dutela.

Koruko kideak ez dira pregoia irakurtzera mugatuko, hainbat aldiz abestuko baitute jailetan. Maiatzaren 8an Antzinako Andra Mari Santutegian egongo dira 13:30ean eta, eta 10ean Andra Mari parrokian, 20:30ean.

ZUEN JAIETARAKO PREST!

HERRIKO JAIK, IKASTETXEAK.



zerbikide
ENTERTAINMENT

DISKODANTZA



DiskoFamily
Familia osoa dantzatzera!

KONTRATATU ZURE NEURRIKO JAIK

WWW.ZERBIKIDE.COM
WWW.DISKODANTZA.COM

685 709 890
INFO@DISKODANTZA.COM

Ciudad de Orduña
APARTAMENTU TURISTIKOAK

Ondo pasa jailetan!

6
APARTAMENTU
HIRIGUNEAN
FORU PLAZAN

Erregistro zenbakia: E-01-01-602

Facebook orrira sar zaitez eta 4 **PERTSONENTZAKO** egonaldi baten zozketan parte hartu!

INFORMAZIOA
ETA ERRESERBAK

www.apartamentuorduna.com
621 209 221
info@apartamentuorduna.com

BATZOKI!



BATZOKI ORDUÑA
Andra Mari Marien Baxoa
Bilbo, 20
40400 ORDUÑA (Bizkaia)
Tel.: 945 38 39 26 - 688 27 24 40

Etxeko janarian espezializatua
Egin erreserba eta ospatu otxomaioak gurekin
Gora Otxomaio!



 **HIKEI**

Jatetxe berria
Urduñan!

Egungo sukaldaritza freskoa.

Pintxoak, errazioak, errazio erdiak,
karta eta adosturiko menuak.

Erreserba egitea gomendatzen da.

Kale Barria 13 - Tel.: 945 38 48 92
info@hikei.es